

DEKALOGO

Dementia duen pertsona bati laguntzea eta zaintzea Arreta Integralaren eta Pertsona Ardatz duen Arretaren eredutik



Informazio gehiago:
ceafa.es/red-de-agentes



POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL



POR SOLIDARIDAD
OTROS FINES DE INTERÉS SOCIAL





Pertsona Ardatz duen Arreta Integralaren ereduak **dementia duen pertsonaren beharrak identifikatzea, ulertzea eta asetzen laguntzea ahalbidetzen digu:** premia fisikoak, psikologikoak, afektiboak, sozialak eta espiritualak.




Dementia duten pertsonen arretak haien ongizate integralera eta bizi kalitatera bideratuta egon behar du, nahi dutena egin ahal izateko eta unean uneko beren helburuak lortzeko laguntza emanez. **Haien egoerara eta gaixotasunaren bilakaerara egokituz,** etorkizunean gaixotasunaren aldaketa kontuan hartu gabe.



Dementia duen pertsonak adierazten duena aktiboki entzun behar da, eta ahoz egiteko zailtasun handiak izaten dituztenez, ezinbestekoa da pertsona bakoitzaren keinuak eta portaerak eta une bakoitzean **komunikatu nahi edo behar duena arretaz behatzen eta interpretatzen ikastea.**



Erabakigarria da dementia duen pertsonak **ingurune fisiko estimulatzailea, segurua eta etxe gisa ezagutzeko modukoa izatea, orientazioa errazteko,** eta, beraz, bere gaitasunak optimizatzeko aukera emango diona, bere ekimena (erabakitzeke autonomia) eta bere kabuz moldatzeko gaitasuna (independentzia funtzionala) mantenduz, ahal den neurrian.



Ingurune gaitzaile horrek -fisikoa eta humanoa- aukera eman behar dio askatasunez moldatzeko eta, bere gaitasunen eta nahien arabera, etxeko zereginak egiteko, rolak betetzeko, jarduera baliotsu eta esanguratsuetan parte hartzeko eta elkarrekin bizi diren pertsonen taldean **integratuta sentitzeke.**



Dementia duen pertsonak begirunezko harremanak bizi behar ditu. Horrek esan nahi du gaizki sentiarazten duten mezuak eta portaerak saihestu behar direla. Funtsezkoa da pertsona **ulertua, maitatua eta estimatua** sentiaraziko duten mezuak (hitzezkoak eta gorputzekoak) ematen saiatzea, komunikatzen duenarekiko interesa agertzea eta maitasunezko adierazpenak eskaintzea.



Desorientazioa, segurtasunik eza, autoestimua galera, beldurrak eta abar eragiten dituen gaixotasun horrekin bizitzeak **duen esperientzia zaila ulertzen saiatu behar dugu,** eta, begirada horretatik, harremanak eta bizi testuinguruak eskaini behar dizkiegu, dementia duen pertsona bakoitzari ahalik eta bizitza atsegina eta sufrimendu gutxiena izateko.



Baliteke pentsatzeko eta jarduteko modu batzuk desikasi behar izatea eta dementia duen pertsonarekiko **bizitza eta bizikidetzak hobetzen** lagunduko duten **beste modu batzuk ikasi behar izatea.** Positiboa da onartzea ez dugula beti pertsona bakoitzarentzat ahalik eta hobekien egiteko ezagutza edo trebetasun zehatzik.



Gehiago baloratu eta lagundu beharko genituzke dementia duten pertsonen zaintzaileak (senideak, lagunak edo profesionalak), denbora, zereginak eta erantzukizunak partekatuz, **zaintzaileen autozainketa errazteko.**



Dementia duten pertsonen duintasuna eta esku-bideak egunerokoan aitortu eta sustatu behar dira, gaixotasunak eragiten dituen egoerak edo ondorioak alde batera utzita, eta hori, besteak beste, **aurreko puntuak praktikan jartzen** saiatuz lortzen da.